

## Literatur solasaldiak hastera doaz Liburutegi Nagusian eta Ernest Lluch Kultur Etxean

Udazkenaren atarian Donostia Kulturak prestatu duen jarduera egitarau berrian deigarriak dira Udal Liburutegien Sareko bi zerbitzuek, hau da, Liburutegi Nagusiak Alde Zaharreko bere ohiko egoitzan eta Anoetako Ernest Lluch Kultur Etxeak antolatu dituzten literatur solasaldiak. Datorren lau hilabeteko programazioan, sail bakoitzeko gidaitzaileak burutu duen aukera zabala eskaintzen zaigu.

**Juan Luis Zabala** idazle eta kazetariak koordinatuko duen euskarazko tertuliak, hilaren 28an izango du hasiera, **Udal Liburutegi Zaharreko Ekitaldi Aretoan** (San Jeronimo kalean), **Zazpi etxe Frantzian**, Bernardo Atxagaren azken nobelarekin. Urriko saioan **Nora ez dakizun hori** aztertuko da, bertan izango da liburuaren egilea den Irati Jimenez idazle gaztea. Azarorako, berriz, itzulpen bat hautatu da, Gesualdo Bufalino italiar idazlearen **Gaueko gezurrak**, eta azkenik, abenduan, aurtengo beste nobedade bat, Anjel Lertxundi idazlearen, **Zoaz infernura, laztana**, eleberria.

Liburutegi Nagusiak, euskarazko solasaldiarekin batera gaztelaniazko solasaldia ere antolatzen du, **Beatriz Monreal**, literaturako irakasle eta nobelan adituak zuzentzen duena. Hizketaldiak irailaren 29an hasiko dira klasiko bihurtu den Manuel Puig-en **La mujer araña** liburuarekin. Urriaren 27rako aurtengo liburu berri bat hautatu da, **La sociedad literaria y el pastel de piel de patata de Guernsey** izenekoa, Mary Ann Shaffer andereak Annie Borrowsen bere ilobaren laguntzarekin idatzi zuena. Gutun eleberri honetan Bigarren Mundu Gerratea ondoren Londresen sortu zen irakurketa talde baten sorrera kontatzen zaigu. Azkenik, azaroa eta abenduan, **El informe de Brodeck** liburua Philippe Claudel-ek idatzia eta Carson McCullers-en **La balada del café triste**, irakurriko dira hurrenez hurren.

Ernest Lluch Kultur Etxeari dagokionez, eta **Jose Luis Canchoren** gidaritzapean, jarraian aipatzen diren liburuak irakurriko dira: alde batetik, bi autobiografia, aurten argitaratu den **Un ángel en mi mesa**, Janet Frema idazlearena, urriaren 8an; eta Doris Lessingek bere garaian idatzi zuen **Dentro de mí** izenekoa, abenduaren 10ean. Hiruhilekoaren programa Tobías Wolf-en **Vieja Escuela** eleberriarekin osatzen da, nahiz eta ez izan autobiografia bere haurtzaroko hainbat gertaeratan oinarritzen den liburua.

Tertulietarako hautatuak izan diren liburuak Alderdi Eder eta kultur etxeetako liburutegietan daude, etxerako mailegu zerbitzuetan.

## A punto de comenzar las tertulias literarias en la Biblioteca Central y el Centro Cultural Ernest Lluch

Con la llegada del otoño Donostia Kultura lanza su nuevo programa de actividades, entre las que merecen reseñarse las tertulias literarias que viene organizando la Red de Bibliotecas Municipales de San Sebastián en dos de sus centros, la Biblioteca Central y el Centro Cultural Ernest Lluch en Anoeta. La programación para el próximo cuatrimestre ofrece una selección variada que ha sido realizada por los dinamizadores de cada uno de los diferentes ciclos.

El escritor y periodista **Juan Luis Zabala** coordinará la tertulia en euskara, que se iniciará el día 28, lunes, en la Sala de Actividades de la antigua Biblioteca Municipal (calle San Jerónimo), con **Zazpi etxe Frantzian**, la última novela escrita por Bernardo Atxaga. En la tertulia de octubre se comentará **Nora ez dakizun hori**, y se contará con la presencia de la propia autora, la joven escritora Irati Jiménez. Para noviembre ha sido seleccionada una traducción, **Gaueko gezurrak** del italiano Gesualdo Bufalino y finalmente en diciembre, otra novedad de este año como es la novela **Zoaz infernura, laztana** del escritor Anjel Lertxundi.

La Biblioteca Central también organiza una tertulia en castellano, que es dirigida por **Beatriz Monreal**, profesora de literatura y experta en novela. Las charlas se iniciarán el 29 de septiembre con un clásico como es **La mujer araña** de Manuel Puig. Para el 27 de octubre ha sido seleccionada una novedad de este año, **La sociedad literaria y el pastel de piel de patata de Guernsey** escrito por Mary Ann Shaffer con la colaboración de su sobrina Annie Borrow, novela de estilo epistolar que cuenta la creación de un club de lectura en Londres al finalizar la Segunda Guerra Mundial. La programación se completa con **El informe de Brodeck** de Philippe Claudel y **La balada del café triste** de Carson McCullers, en noviembre y diciembre respectivamente.

En cuanto al Centro Cultural Ernest Lluch, de la mano de **José Luis Cancho** se comentarán las siguientes obras literarias: por una parte, dos novelas autobiográficas, **Un ángel en mi mesa**, de Janet Frema que ha sido publicada este año, para el 8 de octubre, y **Dentro de mí**, autobiografía de Doris Lessing, el 10 de diciembre. La programación trimestral se completa con la novela escrita recientemente por Tobías Wolf, titulada **Vieja Escuela**, que aunque no es una autobiografía se basa en sucesos de su infancia.

Los libros seleccionados se encuentran disponibles en los servicios de préstamo a domicilio de la Biblioteca de Alderdi Eder y bibliotecas de los centros culturales.